



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

ALBISTEAK

BIDASOA-TXINGUDI

www.irunhondarribiahendaye.com

UDA KO JAI AK

Udan, Bidasoa-Txingudi eskualdean, jai ugari egiten dira **Irun**, **Hondarribia** eta **Hendaia** artean, eta horrela, bertakoek eta bisitariak eguraldi ona partekatu eta gozatu dezakete, bertako tradizio enblematikoenak ospatuz.

Urtero, **Irungo** San Martzial jaiak izaten dira lehenengo hitzordua. Ekainaren 30a izaten da egun nagusia, egun horretan ospatzen baita Napoleonen tropen aurrean lortutako garaipenaren oroitzuten duen Alardea.

Irunen, Dies Oissonis da beste hitzordu garrantzitsu bat. Honetan, hiriaren iragan erromatarra ospatzen da uztailearen 12tik 14ra: birsorkuntzako eszenifikazio ikusgarriak egiten dira Museoaren inguruan.

Hendaian, arrantzaren tradizioa nabarmentzen da, eta hainbat herri-jarduera egiten dira, jarduera horri begira, hala nola Txipiroiaren jai Kanetan, uztailearen 13an, eta Itsasoaren Jai La Floridako kaian, uztailearen 20 eta 21ean.

Hondarribian, nabarmentzekoa da uztailearen 25eko Kutxaren Entrega, urtero arrantzaleen kofradiak antolatzen duena. Bertan, neska bat biraka aritzen da, horrela inauguratzen den kanpainaren zantzu gisa.

Abuztuaren lehenengo hamabostaldian, euskal tradizioak protagonismo osoa hartzen du; izan ere, mugako hiru udalerrietan jarduera ugari antolatzen dira bertako folkloarekin, musikarekin, dantzekin, gastronomiarekin, kirolarekin, ... Esaterako, "Euskal Jira" abuztuaren 3an, **Irunen**; "Herri Giroa" abuztuaren 4an, **Hondarribian**; "Hiri besta" abuztuaren 11n, **Hendaian**; jai beraren, euskal kulturaren adierazpide.

Azkenik, eskualdeko udako jai-giroari amaiera emateko, Guadalupeko Ama Birjinaren herriko jaiak ospatzen diren irailaren 8an, **Hondarribian**. Hor ere, Alardea gailentzen da, hiri Frantziako Luis XIII Erregearen tropen setiotik askatu zuteneko ospatzen duena.

BIDASOA FOLK

Abuztuaren hirugarren astean, ostiraletik, 16tik, igandera, 18ra, Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoaren jai handia ospatzen da, **Irungo**, **Hondarribiko** eta **Hendaiko** udaleko antolatuta, musikaren bidez, hizkuntza unibertsala den aldetik. folk musika tradizionaleko eta garaikideko artista onenak biltzen dira herrien arteko batasuna den artean ospatzeko aukera ematen duen jaialdi honetan. www.irunhondarribiahendaye.com/bidasoafolk/

HONDARRIBIA IRUN TURISMOA

www.bidasoaturismo.com



Bisita gidatuak uztailean eta abuztuan

Irunen

Asteazkenetan, 11:00etan, eta ostiraletan, 17:00etan. 2 euroko tarifa (umeak dohainik). 2 orduko iraupena. Junkaleko parrokiaren elkartuta. (0034) 943 020 732 deituz erreserbatu

Hondarribian

Hiriaren bisitaldia egunero. **11:00etan** => hirigune historikoa – ingelesez – 4 € (1:00 or.). **11:30etan** => hirigune historikoa eta Portua - gaztelaniaz – 6 € (1:45 or.). **12:00etan** => bisita familientzat – gaztelaniaz – 2 €/4 € (1:15 or.). **15:00etan** => gaztelua eta eliza – frantsesez – 4 € (1:00 or.). **16:30etan** => hirigune historikoa – gaztelaniaz edo euskaraz – 6 € (1:30 or.). Guadalupeko Gotorlekura bisitaldia euskaraz. Iraupena 2:00 ordu. Tarifa 10 €. Ostiraletan eta larunbatetan 17:00etan. Igandeetan 11:00etan.

Erreserbak: (0034) 943 643 677. www.armaplaza.eus/eu/ibilibideak

Uretako jarduera-programa

Zatoz itsas ekintza ugari gozatzera.

www.bidasoaturismo.com => Kirol turismoa: Itsasoa

HENDAYE TOURISME

www.hendaye-tourisme.fr



Hendaia bat egiten du Famille Plus helmugetako klub erreserbatuarekin: dituen natur baliabideei esker, eta 2012tik gazteen aldeko jarduerak antolatzen dituelarik, **Hendaia** hautagai aurkeztu da 2018an, "Famille Plus" labela eskuratzeko. Eta iazko urriaren 8an jaso zuen sari hori alkate jaunak l'ANETT (Association Nationale des Elus des Territoires Touristiques) elkarteko zuzendari Géraldine Leduc bertan zela.

Label horrek 17 profesional ere saritzen ditu ekimen horrekin konprometitzegatik; udan ikuskatu zituzten hain zuzen. Haiak guztiek jakin izan dute beren bezeroen itxaropenei erantzuten eta familientzako zerbitzu egokituak proposatzen... Bestela esanda, proiektuan inplikatu dira.

www.hendaye-tourisme.fr/fr/a-faire/famille-plus/

TURISMO NEWSLETTERRA

2. – 2019ko Ekaina





Bidasoa - Txingudi

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

AGENDA

URTE OSOAN

ONDAREA

Oiasso erromatar museoa: bidaiatu ezazu erromatarren garaira Oiasso portuko hondakin arkeologikoekin, bertako termekin, nekropoliarekin eta meatze ustategiekin.

Eskoleta 1, [Irunen](#).

www.oiasso.com

Kultur Informazio zentroa: ezagutu ezazu hiria bere historiaren, ondare ukiezinen eta bere kulturaren bidez, egungoa nahiz tradizionala.

Arma Plaza 9, [Hondarribian](#).

www.armaplaza.eus

Abbadia Gaztelu Behatokia: Etor zaitez Euskal Herriko gaztelu bereziena ezagutzera edo berrezagutzera, bisita gidatuak urte osoan.

Route de la Corniche, [Hendaian](#).

www.chateau-abbadia.fr

Bidasoko Interpretazio zentroa: Oinezkoentzako nazioarteko zubiaren ertzean, badiako bidearen bihotzean, [Irun](#), [Hondarribia](#) eta [Hendaia](#), hiru hiriak biltzen dituen mugaldeko lurralde honetan aurki daitezkeen interes komunekin gai nagusiak ekartzen ditu gogora zentro honek.

Iparralde etorbidea 63, nazioarteko zubiaren ondoan.

www.irunhondarribiahendaye.com => Home / ure eskaintzak

AZOKAK

[Irunen](#), azoka larunbat goizetan Urdanibia plazan.

[Hondarribian](#), baserriko produktuen azoka asteazkenetan Damarri plazan eta larunbatetan Portuan; brokantea eta bildumazaletasuna hilabetero 1. eta 2. igandeetan Kirol Kaian; arte azoka hilabetero 3. igandean Kirol Kaian.

[Hendaian](#), merkatu txikia asteazken goizetan Errepublikan plazan eta larunbat goizetan Sokoburur. Udan: Artisau-azoka gauez, itsas ibilbidean, astelehenetan. Palmerako hitzorduak, astearteetan, Palmerako biribilgunean, goizez; kaiko ostegunak, Sokoburur, gauez.

UDAN

Ekainaren 22an: Bkingo Eguna, HS2 Surf Center-ek antolatua, Kai Zaharretik, [Hondarribian](#).

Ekainaren 23tik uztailaren 1era: San Pedro eta San Martzial jaiak [Irunen](#).

Uztailaren 5etik 7ra: Guitarde musika-jaialdia [Hendaian](#).

Uztailaren erdi aldera: Piraguismoko Nazioarteko Bidasoko Jaitsiera, [Irun](#) Santiagotarrak elkarteak antolatuta.

Uztailaren 9tik 12ra: [Hendaia](#)k uda ospatzen du; familia guztiarentzako jarduerak => www.hendayefetele.com

Uztailaren 13an: Txipiroiaren jaiak, [Hendaia](#)ko hondartzan.

Uztailaren erdi aldera: "Luis Mariano" Nazioarteko Kantu Lehiaketa, [Irun](#)ko Amaia Kultur Zentroan.

Uztailaren 12tik 14ra: Dies Oiassonis [Irun](#)ko Oiasso Erromatar Museoak antolatuta => www.oiasso.com

Uztailaren 20tik 21era: Itsas Jaia, La Floridako kaian, [Hendaian](#).

Uztailaren 25ean: Kutxaren Eguna, Arrantzaleen Kofradiak antolatua, [Hondarribian](#).

Abuztuko lehenengo hamabostaldian: Euskal Jira, [Irunen](#) (abuztuak 3) - Herri Giroa, [Hondarribian](#) (abuztuak 4) - Hiri Besta, [Hendaian](#) (abuztuak 11).

Abuztuaren 11n: Traineru Estropada, [Hondarribiko](#) Bandera, Txingudiko Badian.

Abuztuaren 16tik 18ra: Bidasoa Folk jaialdiaren 19. edizioa, Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoak antolatua, [Irunen](#), [Hondarribian](#) eta [Hendaian](#) => www.irunhondarribiahendaye.com/bidasoafolk/

Irailaren 6tik 11ra: Guadalupeko Ama Birjinaren jaiak, [Hondarribian](#).

TREN TURISTIKOAK

[Irun](#)ko Meatze Trena

Oiasso Museoa => Irugurutzetako labeak. Ostegun, ostiral eta larunbatetan: 17:00etan. Iraupena: Ordu eta erdi. Oinarrizko tarifa: 5,50€. Erreserbak: (00 34) 943 639 353 - www.irun.org/turismo/tren_verde.asp

[Hondarribiko](#) Tren Berdea

Hirian zeharreko ibilbidea => igandeetan: 11:00etan, 12:00etan, 13etan, 17:00etan, 18:00etan, 19:00etan; astelehen eta astearteetan: 11:00etan, 12:00etan 13:00etan. Iraupena: 45 minutu. Oinarrizko tarifa: 4€.

Guadaluperako ibilbidea => astelehen eta astearteetan: 16:30etan eta 18:30etan. Iraupena: 1:45h. Oinarrizko tarifa 6€ www.armaplaza.eus/eu/ibilbideak

[Hendaia](#)ko Tren Ttipia

Turismo Bulegoa => hiriko erdialdea. Egunero, ordu oro, 11:00etatik 18:00etara. Iraupena: 30 minutu. Oinarrizko tarifa: 6€. Erreserbarik gabe. www.petit-train-hendaye.fr

TURISMO NEWSLETTERRA

2. – 2019ko Ekaina

